Hamargarrena.- Gerora hirigintzako legedia aldatuko balitz eta hitzarmen honen ondoriozko jardueretan eragina balu, aldeek bertako klausulak aldatu egingo dituzte eta eduki materialean ez litzateke aldaketarik egingo ezarritako helburuei dagokienez.

Hamaikagarrena.- Agiri honen edukiarekin zerikusia duen jakinarazpen orotarako, agiri honen goiburuan dagoen EXCIAren helbidea hartuko da kontuan eta Iruña Okako Udalari jakinarazteko Udaletxera igorri beharko da.

Hamabigarrena.- Hirigintzako Hitzarmen honen interpretazioan egon daitekeen desadostasun orotarako eta honen ondoriozko gai orotarako, izaera juridiko administratiboa dutenez, bi aldeak gaiaren arabera eskumendun izango diren Epaitegi eta Auzitegietan administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren mende daude.

Eta hitzartutakoarekin ados daudela adierazteko, Hirigintzako Hitzarmen honen hiru ale sinatu dira goiburuan adierazitako tokian eta datan, fede ematen duen Udaleko idazkari nagusiaren aurrean.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Erreklamaziorik egonez gero, akordio berriren bat adostu beharko da.

Langraiz Okan, 2014ko otsailaren 20an.– Alkate-lehendakaria, JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA.

Décima.- En casos de ulterior modificación de la legislación urbanística que afectase a las actuaciones derivadas del presente convenio, las partes procederán a modificar el clausulado del mismo, manteniendo el contenido material sin rectificaciones respecto a los objetivos establecidos.

Undécima.- Para cualquier clase de comunicación o notificación que tenga que ver con el contenido del presente documento, se designa como domicilio de EXCIA el que figura en el encabezamiento del presente documento, designándose como domicilio a efectos de notificaciones del Ayuntamiento de Iruña de Oca el domicilio de la propia Casa Consistorial.

Duodécima.- Para cualquier divergencia que pudiera producirse en la interpretación del presente Convenio Urbanístico, así como para cualquier cuestión que pudiera derivarse del mismo, debido a su carácter y naturaleza jurídico administrativa, ambas partes se someten a la jurisdicción contencioso administrativa ante los Juzgados y Tribunales que resultaran competentes por razón de la materia.

Y en prueba de conformidad con lo acordado, se firma el presente Convenio Urbanístico en el lugar y fecha indicado en el encabezamiento, por triplicado ejemplar, ante la Secretaría General del Ayuntamiento, que da fe.

Este acuerdo se considerará como definitivo si no hubiera reclamaciones. Si las hubiere se deberá adoptar nuevo acuerdo al respecto.

En Nanclares de la Oca, a 20 de febrero de 2014.– El alcalde-presidente, JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA.

## IRUÑA OKA

**1005**

**Behin betiko onartzea txakurrak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantzari.**

Ez da erreklamaziorik aurkeztu animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantza ezartzeko erabakiaren aurka. Horregatik, behin betiko onartuta geratzen da, eta osorik argitaratzen da, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako:

### TXAKURRAK EDUKITZEA ETA BABESTEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Zioen azalpena

Eusko Legebiltzarraren urriaren 29ko 6/1993 Legeak, animaliak babestearenak, gutxieneko lege esparru bat finkatu zuen gizakion eta txakurren elkarbizitza antolatzeko, osasungarritasun publikoaren zainketa eta animalienganako errespetua, defentsa eta babesa uztartuz, interes orokorrekin doitutako oreka baten barruan.

Lege hori argitaratu eta indarrean jarri zenetik, nabarmen egin du gora txakurrak izatearen gertakariak, eta, gorakada horren heinean txakurren eskubideen inguruko kontzientziazioa eta txakurrak egungo ingurune modernoan modu egokian bizitzeko esparru zehatzagoa finkatu behar dela diotenen indarra; izan ere, geroz eta beharrezkoagoa da txakurra duten pertsonen eta gainerakoen arteko elkarbizitza ondo bideratzea, arriskuek gainez egin ez diezaieten animaliak gertu izateak dakartzan onurei.

Txakurra duten pertsonek kontuan eduki behar dute animaliak beraien menpean daudela gauza guztietarako. Txakurrek behar dituzten arreta guztiak emateko ardura hartu behar dute eta bermatu behar dute txakurren presentziak edo azturek ez dietela kalte egingo gainerako herritarrei, batez ere txakurrak gustatzen ez zaizkien pertsonei eta herriguneetako higienean, apaindura eta segurtasunean.

## IRUÑA DE OCA

**1005**

**Aprobación definitiva ordenanza reguladora de tenencia y protección de perros.**

No habiéndose presentado reclamaciones contra el acuerdo de imposición de la ordenanza reguladora de tenencia y protección de perros, la misma queda aprobada definitivamente, publicándose a continuación el texto íntegro de la ordenanza, a los efectos previstos en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril Reguladora de las Bases de Régimen Local:

### ORDENANZA REGULADORA DE LA TENENCIA Y PROTECCIÓN DE PERROS

Exposición de motivos

La Ley del Parlamento Vasco 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de animales introdujo un marco jurídico mínimo para ordenar la convivencia de los seres humanos con los perros conjugando la preservación de la salubridad pública con su respeto, defensa y protección, dentro de un equilibrio ajustado a los intereses generales.

Desde la publicación y entrada en vigor de la mencionada Ley se ha producido un notable incremento cuantitativo en el fenómeno social de la tenencia de perros y un paralelo incremento cualitativo en la conciencia social sobre los derechos de los perros y la exigencia de un marco más exigente para ordenar su adecuada convivencia en un ámbito social moderno, procurando encauzar la compatibilidad entre ambos colectivos los tenedores de perros y el resto, de forma razonable para que sus peligros no tornen en desventajas los muchos beneficios de la cercanía de animales.

Las personas han de tener en cuenta que los animales dependen absolutamente de ellas y que deben responsabilizarse de todas las atenciones que requieren, así como de asegurar que su presencia o sus hábitos no van a ser dañinos para el resto de la comunidad, sobre todo para la higiene, el ornato y la seguridad de los núcleo de población y para las personas a las que no les agrada la presencia de estos animales

Txakurrak babesteko Legea onartu zenetik, arlo honetan arauzko erregulaziorako prozesu sendoa egon da. Horren adierazgarririk garrantzitsuena izan zen, seguruenik, abenduaren 23ko 50/1999 Legea, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzkoa. Txakur arriskutsu batzuk edukitzeak gizartean sortutako kezkari erantzun nahian, lege horrek araubide zorrotza ezarri zuen era horretako animaliak edukitzeari dagokionez, aldez aurretik baimena eskuratzeko betebeharra eta animaliok edukitzeko baldintza berezien derrigorrezkotasuna eskatuz, besteak beste.

Hasieran, abenduaren 23ko 50/1999 Legea behar bezala aplikatzeko beharrezko legegintza-garapenik ez zenez egon, gure eremu autonomikoan berariazko arau bat onartzearen alde egin zen, hain zuzen, apirilaren 4ko 66/2000 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzea arautzen duena. Beste hainbat gairen artean, «arriskutsuak izan daitezkeen txakurren» figura ezarri zuen, zenbait animalia edukitzeak gizartean sortutako aipatutako kezkari erantzuteko asmoz. Hala ere, arau horren indarraldia arras eztabaidatua izan zen martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretua argitaratu zenean. Dekretu horren bidez abenduaren 23ko 50/1999 Legea garatzen zen, lege horren aplikazio eremua zehaztasunez mugatuz, neurri handi batean oinarrizko izaerarekin.

Segurtasun juridiko gabeko egoera sortu berria gainditu eta erregulaziorako marko egonkorra finkatzeko, argitara eman zen ekainaren 1eko 101/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoa. Dekretu horrek, berrikuntza batzuekin, lehendik zeuden arauak bateratu eta, beharrezkoa izan zen kasuetan, hasieran aipatutako urriaren 29ko 6/1993 Legeak, animaliak babestearenak, adierazitako testuinguruan kokatu zituen.

Bada, ordenantza honek jaso eta eguneratu egiten du adierazitako prozesu guztia, bai eta animaliak edukitzean eta animalien babesean zein merkaturatzean eragina duten arauak ere, horiek udal jardueraren eremura egokituta. Horrela, tresna baliagarri eta eraginkor bat izango dugu eskura arautu, kontrolatu eta esku hartu ahal izateko, txakurrak edukitzearekin lotutako alderdiak eta jarduera eremuak elkarloturik dauden konplexutasunean eta gizakiekin elkarbizitza aurrera eramateko gizarte moderno eta konplexuetan.

**I. titulua.- Xedea, aplikazio eremua eta definizioak**

1. kapitulua.- Xedea eta aplikazio eremua

**1. artikulua.- Xedea.**

Ordenantza honen xedea da, batetik, Iruña Okako udalerrian dauden txakurrak babestu, eduki eta saltzeko arauak ezartzea, erroldatutakoak izan ala ez, bertan erregistratutakoak izan ala ez, animalion jabeen edo edukitzaileen bizilekua edozein izanik eta, bestetik, euren eta pertsonen arteko elkarbizitza harmonizatzea ingurumenaren osasunerako eta pertsonen eta ondasunen lasaitasun, osasun eta segurtasunerako balizko arriskuekin.

Horretarako, tratua, higienea eta zainketaren ikuspuntutik txakurrek gutxienez jaso beharreko arretak finkatu, eta establezimendu berezietan egoteari, osasun sorospenari, merkaturatzeari eta saltzeari buruzko arauak ezartzen ditu.

Era berean, arriskugarriak izan daitezkeen txakurrak edukitzeari buruzko araubide juridikoa arautzen du, eta baimenaren beharra, txakurrak edukitzeko baldintza orokorrak eta erregistroen araubidea ere kontuan hartzen ditu.

II. kapitulua.- Definizioak

**2. artikulua.- Definizioak.**

1. Txakur abandonatua: jatorriaren edo jabearen inolako identifikaziorik ez duena eta inork laguntzen ez duena.

2. Kaleko txakurra: identifikazioa izan arren, galerari buruzko salaketa aurkeztu ez duen edukitzaile edo baimendutako pertsona duena.

3. Txakurraren edukitzailea: Txakurren erroldaren arabera, txakurra haren izenean duen pertsona, horren arduraduna dela.

Desde la aprobación de la Ley de Protección de los Perros, ha habido un importante proceso de regulación normativa de la materia, cuya expresión más importante, probablemente, haya sido la Ley 50/1999, de 23 de diciembre, sobre el Régimen Jurídico de la Tenencia de animales Potencialmente Peligrosos que, ante la alarma social creada por la tenencia de determinados perros de tal naturaleza, vino a establecer un exigente régimen para su tenencia, incluyendo la obligatoriedad de la obtención de una licencia previa y de unas condiciones especiales de tenencia.

En un primer momento y ante la falta de desarrollo legislativo de la Ley 50/1999, de 23 de diciembre, necesario para su debida aplicación, se optó en nuestro ámbito autonómico por la aprobación de una norma específica como fue el Decreto 66/2000, de 4 de abril, Regulador de la Tenencia de animales de la Especie Canina en la Comunidad Autónoma del País Vasco que, entre otros extremos, introdujo la figura de los perros de riesgo para atender la mencionada preocupación social ante la tenencia de determinados animales, no obstante la vigencia de dicha norma quedó seriamente cuestionada por la publicación del Real Decreto 287/2002, de 22 de marzo, por el que se desarrolla la Ley 50/1999, de 23 de diciembre, que vino a delimitar con precisión el ámbito de aplicación de la mencionada Ley, en gran medida de carácter básico.

Para superar la situación de inseguridad jurídica creada y fijar un marco estable de regulación se ha publicado el Decreto 101/2004, de 1 de junio, sobre tenencia de animales de la especie canina en el País Vasco que, con determinadas innovaciones, refunde la normativa anterior enmarcándola, cuando es necesario, en el contexto de la inicialmente citada Ley 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales.

Pues bien, la presente ordenanza recoge y actualiza todo el proceso señalado así como otras normas que inciden en la tenencia, protección y comercialización de los animales, adecuándolas al ámbito de actuación municipal de manera que se disponga de un instrumento útil y eficaz para regular, controlar e intervenir, en la complejidad interconexa de aspectos y ámbitos de actuación relacionados con la tenencia de perros y con el consiguiente fenómeno de su convivencia con los seres humanos en el marco de sociedades modernas y complejas.

**Título I.- Objeto, ámbito de aplicación y definiciones**

Capítulo I. Objeto y ámbito de aplicación

**Artículo 1.- Objeto.**

Es objeto de la presente ordenanza establecer normas para protección, tenencia, y venta de los perros que se encuentren en el municipio de Iruña de Oca con independencia de que se encuentren o no censados, o registrados en él y sea cual fuere el lugar de residencia de los dueños y de las dueñas o poseedores, armonizando la convivencia de los mismos y las personas con los posibles riesgos para la sanidad ambiental y la tranquilidad, salud y seguridad de personas y bienes.

Para ello fija las atenciones mínimas que han de recibir los perros en cuanto a trato, higiene y cuidado, protección y transporte, y establece las normas sobre su estancia en establecimientos especializados, atención sanitaria, comercialización y venta.

Asimismo se regula el régimen jurídico de la tenencia de perros potencialmente peligrosos, contemplando la sujeción a licencia, condiciones generales de la tenencia y régimen de registros.

Capítulo II.- Definiciones

**Artículo 2.- Definiciones.**

1. Perro abandonado: aquel que no lleve ninguna identificación del origen o propietario, ni vaya acompañado de persona alguna.

2. Perro vagabundo: aquel que portando su identificación no haya sido denunciado su extravío por su poseedor o persona autorizada.

3. Poseedor del perro: Persona a cuyo nombre figura en el censo canino siendo responsable del mismo.

4. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren I. eta II. eranskinetan zehaztu dira; horrez gainera mota bereko txakurrak dira dekretu horretako 10.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera arriskutsutzat jotzen direnak ere.

5. Edukitzeko baldintza berezipeko txakurtzat hartuko dira beraien ezaugarri etologikoengatik etxean eduki ahal izateko udal agintaritzak baldintza bereziduntzat izenda ditzakeen txakurrak.

**II. titulua.- Txakurrak edukitzearen araubide juridikoa**

I. kapitulua.- Arau orokorrak

**3. artikulua.- Betebeharrak.**

1. Oro har, txakurra daukanak ondo artatu behar du (bizimodua, higienean eta osasuna) eta ezin du jo, ez gaizki erabili, ez abandonatu. Horrez gainera txakurraren portaeraren eta pertsonei eta ondasunei egiten dizkien kalteen erantzulea da.

Txakurra daukanak animaliak mantentzeko gutxieneko baldintza hauek bete behar ditu:

a) Edateko ur eta elikagai nahikoa eta orekatua ematea, nutrizio eta osasun egokia izan dezan.

b) Txakurra osasun egoera onean izan behar du, behar den guztietan albaitariarengana eraman behar du.

c) Txakurrarentzat egokiak eta beharrezkoak diren espazioa, aireztapena, hezetasuna, tenperatura, argia eta babesa eduki behar ditu, hark sufrimendurik jasan ez dezan eta bizitzako premiak eta ongizatea bermatuta eduki ditzan.

d) Bizilekuak garbi, parasiturik gabe, desinfektatuta eta intsekturik gabe edukitzea, gorozkiak eta gernua aldian-aldian kenduta.

e) Ezin du eduki beti lotuta, ezta mugitu ezinik ere. Ezin du erabili txakurraren mugikortasuna murrizten edo mugatzen duen tresnarik.

f) Ezin du abandonatu, ez tratu txarrik eman, ez torturatu, ez kaltea edo sufrimendua sorrarazi ahal dion ezer egin, ez mutilatu, albaitari batek egin ezean edo duten arrazarako itxura egokia ematekoak izan ezean. Ezin da hiru egun baino gehiago bakarrik utzi etxean pertsona baimenduren baten kontrolik gabe.

g) Txakurrak solte badago lorategi, orube eta itxitako bestelako esparru batean, hurbiltzen diren igaroleei kalterik ez egiteko neurriak ezarri behar ditu, batez ere hesia, eta txakurraren berri ematen duen oharra jarri behar du.

h) Txakurraren zaunkek ezarritako parametro akustikoak ez gainditzea bermatu behar du.

i) Txakurraren ohiko bizilekua ezin da izan ibilgailua. Garraiatu behar izanez gero, tamaina nahikoa duen espazio batean egin behar da, aterpean eta eguraldi aldaketa zakarretatik babestuta. Gainera, txakurrak ezin du ibilgailuaren gidariaren jarduna oztopatu, ez eta bide segurtasuna arriskuan jarri ere. Ibilgailua txakurraren ezaugarri etologiko eta fisiologikoetarako egokia izan behar da.

j) Txakurra aparkatutako ibilgailu batean uzten bada, ezin da eduki aparkatuta 4 ordu baino luzaroagoan; udan, ahal dela gerizpetan eta ondo aireztatuta utzi behar da.

k) k)Pertsona batek ezin badu segitu txakurra mantentzen eta badu aurkitzen haren kargu hartu dezakeen inor, baimendutako animaliak babesteko zentro publiko zein pribatu batean utzi behar du.

2. Txakur jabeek ondokoak egin behar dituzte gainerako pertsonekin modu baketsuan bizitzeko:

a) Txakurrak beti txiparekin eta udalaren txakur erroldan erregistratuta eduki.

b) Txakurra beste txakur batzuen kontra edo pertsonen kontra ez xaxatu, ez pertsona edo ondasunei eraso egitera oldarrarazi; debekatuta dago harrokerietan ibiltzea txakurraren erasokortasuna dela eta.

4. Tendrán la consideración de potencialmente peligrosos los perros determinados en los anexos I y II al Decreto 101/2004, de 1 de junio, así como los declarados con tal carácter conforme a su artículo 10.1.c).

5. Son perros sometidos a condiciones especiales para su tenencia, aquellos ejemplares concretos que por sus circunstancias etológicas, puedan ser sometidos por la autoridad municipal a condiciones especiales para su tenencia

**Título II.- Régimen jurídico de la tenencia de perros**

Capítulo I.- Normas de carácter general

**Artículo 3.- Obligaciones.**

1. En general, el poseedor de un perro además de mantenerlo en las adecuadas condiciones, vitales e higiénico sanitarias, sin someterle a vejación o maltrato alguno, ni abandonarlo a su suerte, es responsable de las acciones, molestias o perjuicios que pueda causar el animal a las personas o los bienes propios o ajenos.

El poseedor de un perro debe cumplir las siguientes condiciones mínimas de mantenimiento de los animales:

a) Proveer de agua potable y alimentación suficiente y equilibrada para mantener unos buenos niveles de nutrición y salud.

b) Mantener al perro en buenas condiciones sanitarias, procurándole asistencia veterinaria periódica de manera continuada.

c) Disponer de espacio, ventilación, humedad, temperatura, luz y cobijo adecuado y necesario para no evitar ningún sufrimiento y para satisfacer sus necesidades vitales y su bienestar.

d) Mantener los alojamientos limpios, desparasitados, desinfectados y desinsectados, retirando periódicamente los excrementos y los orines.

e) No mantenerlos permanentemente atados, ni inmovilizados, ni usar artilugios destinados a limitar o restringir su movilidad.

f) No abandonar, ni maltratar, torturar o someter a los animales a prácticas que les puedan producir daños o sufrimientos, ni practicar o causarles mutilaciones, salvo las controladas por el veterinario o veterinaria o para darles la presentación adecuada a su raza. No dejar solos a los animales en el domicilio durante más de tres días sin control por persona autorizada.

g) En caso de tener perros sueltos, en jardines, solares u otros recintos cerrados, disponer de las medidas necesarias para evitar que aquellos puedan producir daños a los transeúntes que circulen por las proximidades, en especial con un vallado, debiendo advertirse en lugar visible de esa circunstancia.

h) Respetar los parámetros acústicos evitando los poseedores del perro que superen los niveles admitidos.

i) No pueden tener como alojamiento habitual los vehículos, y el transporte en los mismos se tiene que efectuar en un espacio suficiente, protegido de la intemperie y de las diferencias climáticas fuertes, y de forma que no pueda ser perturbada la acción del/de la conductor/a, se comprometa la seguridad del tráfico o les suponga condiciones inadecuadas desde el punto de vista etológico o fisiológico.

j) Los vehículos estacionados que alberguen en su interior algún perro no podrán estar más de 4 horas aparcados y en los meses de verano, tendrán que ubicarse preferentemente en una zona de sombra, facilitando en todo momento la ventilación.

k) Las personas poseedoras de perros que no puedan mantenerlos y no encuentre un nuevo responsable, deberán entregarlos a un centro de Protección Animal público o privado, debidamente autorizado.

2. Para posibilitar la convivencia pacífica con el resto de las personas, los poseedores de perros deberán seguir las siguientes pautas:

a) Mantener de forma permanente al perro chipado y registrado en el censo canino municipal.

b) No incitar al perro a atacar a otro perro o persona, ni lanzarse contra las personas o bienes, quedando prohibido hacer ostentación de agresividad de los mismos

c) Debekatuta dago txakurrak urmaeletan, iturrietan eta antzekoetan bainatzea, bai eta umeen jolas tokietan egotea ere.

d) Debekatuta dago txakurrak erakusleihoetan jartzea salmentarako erakargarri gisa; kanpotik inork eragozpenik sortu ezin dien tokian jarri behar dira.

e) Igogailua erabiltzen denean, txakurra daukan pertsonak baimena eskatu behar die igogailuan sartzen diren beste pertsonei; baimenik eman ezean edo norbait uzkur izanez gero, itxaron egin behar du eta geroago sartu biak bakarrik.

f) Nornahi ibil daitekeen bide publikoetan eta espazio libre publikoetan zein pribatuetan ibiltzeko ezinbestekoa da txakurrak txipa edukitzea eta Udalaren erroldan erregistratuta egotea. Horrez gainera pertsona trebeak eta egokiak eraman behar du txakurra, uhalarekin, lokarriarekin edo kate idunekodunarekin lotuta (bi metro luze gehienez). Agerikoa bada txakurraren portaera arriskutsua izan daitekeela, muturrekoa ipini behar zaio, eta gauza bera egin behar arriskutsuak izan daitezkeen animalia guztiekin ere.

g) Landaguneetan aziendekin dabiltzan txakurrek txipa eduki behar dute eta Udalaren erroldan erregistratuta egon behar dira. Hori gorabehera, aske ibil daitezke, baina jabeen edo eramaileen kontrolpean beti; ezin dituzte molestatu etxeko beste abereak, ez basa animaliak, ez pertsonak, ez ondasunak.

h) Ehiza txakurrek ere txipa eduki behar dute eta Udalaren erroldan erregistratuta egon behar dira. Ehizaldietan bakarrik ibil daitezke aske, eta ehiztarien kontrolpean beti. Udalerriko ehiza esparru batera beste udalerri batzuetako ehiztariak badatoz, ehizaren ustiapenaren titularrek kanpotik datozen txakurrek txipa duten eta beraien udalerrian behar bezala erregistratuta dauden kontrolatu behar dute, eta osasun kontrola pasatu duten ere bai.

i) Nolanahi ere, txakurrak daramatzatenek haiek zaindu eta kontrolpean eduki beharko dituzte, eta bermatu egin beharko dute dendenak jatorriko lekura itzultzen direla.

j) Higiezinen eta orubeen jabeek behar diren neurriak hartu behar dituzte txakur basatiak edo kontrolik gabe dabiltzan txakurrak ahalik gutxien izateko.

k) Txakurrak garraio publikoko ibilgailuetan eta herritar guztientzako establezimenduetan sartzeari dagokionez kasuan kasuko udalak berariaz ezartzen dituen xedapenak aplikatuko dira.

3. Txakurra galduz gero, txakurrarekin doanak hauxe egin behar du:

a) Udalari jakinaraztea txakurra galdu dela, hori gertatzen denean.

b) Txakurra kalean hartu dela jakinarazten zaionean, berehala joan gordeta dagoen lekura: hasierako udal gordailua edo animaliak babesteko zentrora) animalia hartu eta sortu dituen kostuak ordaintzera.

Abisua jaso ondoren jabeak ez badu txakurra jasotzen udal gordailuan Arabako Foru Aldundiarekin itundutako animaliak babesteko zentrora eraman baino lehen, zentro horretara joan behar du bila eta bertan sortutako gastuak ordaindu.

4. Txakurraren jabeak edo edukitzaileak uste badu animaliak gaixotasun kutsagarriren bat izan lezakeela, albaitariari eman beharko dio horren berri eta, albaitariak, agintaritza eskumendunari jakinarazi beharko dio, baldin eta zoonosia dela uste edo hala egiaztatu ahal izan badu.

5. Albaitariak diagnostikatzen badu txakur batek gizakiak edota beste animalia batzuk kutsatzeko moduko gaixotasuna izan dezakeela eta, haren iritzian, animalia hiltzea komeni bada, sistema eutanasiko baimenduren baten bidez hil beharko da jabearen kontura.

**4. artikulua.- Animalien identifikazioa.**

1. Udalerrian modu iraunkorrean edo hiru hilabete baino luzaroagoan bizi izanez gero, jabeak udalean identifikatu eta erroldatu behar du txakurra jaiotzen denetik edo eskuratzen duenetik hilabete pasatu baino lehen.

c) Se prohíbe el baño de perros en estanques, fuentes o similares, así como su estancia en zonas reservadas a juegos infantiles.

d) Se prohíbe exhibir a perros en escaparates como reclamos comerciales, deben colocarse en zonas en que no puedan ser molestados desde el exterior.

e) En la utilización de aparatos elevadores, las personas que vayan acompañadas de perros deberán solicitar permiso de utilización simultánea con otras personas, y en caso de negativa u oposición deberán esperar turno para usarlos independientemente.

f) Todos los perros que circulen por las vías públicas, espacios libres públicos o privados de concurrencia pública, deberán estar chipados y registrados en el censo municipal, e irán conducidos por persona capaz e idónea, sujetos con correa, cordón o cadena con collar con una longitud máxima de dos metros, siendo obligatorio el bozal siempre y cuando exista un comportamiento peligroso manifiesto y en el caso de animales potencialmente peligrosos.

g) Los perros que acompañen al ganado en zona rural, que deben estar chipados y registrados en el censo canino municipal, podrán estar sueltos, pero controlados en todo momento por sus propietarios o porteadores, y deberán evitar que puedan molestar a otros ganados domésticos, animales silvestres, personas o bienes.

h) Los perros de caza, que también deben estar chipados y registrados en el censo canino municipal, sólo podrán estar sueltos mientras dure la acción de cazar, debiendo en todo momento estar controlados por los cazadores. En el caso de que acudan a un Coto de caza situado en el término municipal cazadores de otros municipios, los titulares del aprovechamiento del Coto deberán controlar que los perros estén convenientemente chipados y registrados en su municipio de procedencia, así como sanitariamente controlados.

i) El porteador de los perros deberá cuidar de la custodia y control de los perros que le acompañan, asegurándose en todo momento el retorno a su lugar de origen con todos los perros que hubiera acarreado.

j) Los propietarios de inmuebles o solares adoptarán las medidas oportunas al efecto de impedir la proliferación en ellos de animales asilvestrados o incontrolados.

k) La entrada de los animales en transportes públicos o establecimientos de uso público queda sujeta a las disposiciones que en su caso adopte el Ayuntamiento respectivo.

3. En caso de pérdida o extravío de un perro, el poseedor de los mismos deberá:

a) Avisar al Ayuntamiento de la pérdida o extravío del perro, cuando se produzca.

b) Acudir inmediatamente al lugar de depósito del perro (depósito municipal inicial o Centro de Protección Animal) cuando se le comunique la recogida del perro vagabundo para retirar el animal y abonar los costes originados.

Si el poseedor avisado no recoge el perro en el Depósito Municipal antes de su traslado al Centro de Protección Animal concertado por Diputación Foral de Álava, deberá retirarlo de dicho Centro de Protección Animal y abonar los gastos originados.

4. Cuando un propietario o propietaria o tenedor o tenedora considerara que un perro pudiera padecer una enfermedad contagiosa, lo pondrá en conocimiento de su veterinario o veterinaria quien deberá comunicarlo a continuación a la autoridad competente en el caso de que sospeche o pueda confirmar que se trata de una zoonosis.

5. Todos los perros con enfermedad susceptible de contagio para las personas y/o para los animales, diagnosticada por un veterinario o veterinaria y que a su juicio, tengan que ser sacrificados, lo serán por un sistema eutanásico, autorizado, con cargo al propietario o a la propietaria.

**Artículo 4.- Identificación de animales.**

1. Los propietarios o poseedores de perros están obligados a tenerlos identificados y censados en el Ayuntamiento, en el plazo de un mes desde el nacimiento o la adquisición, siempre que se hallen de manera permanente o por periodo superior a tres meses en el municipio.

2. Txakurra identifikatzeko, albaitari ofizial batek (aldundikoak zein udalekoak) edo animalia txikientzat gaitutako albaitari pribatuak mikrotxipa edo osagai elektronikoa jarriko dio lepoaren ezkerraldean.

Aipatutakoa jartzeko, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1993ko maiatzaren 5eko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak identifikatzeko metodo elektrikoen erabilera arautzen duenak, eta ezartzen diren gainerako arauek xedatutakoari jarraituko zaio.

Txakurra identifikatzeko momentuan, albaitari ofizialak edo jardunean ari den gaituak kartilla ofiziala zein identifikatzeko agiria beteko ditu, baita Euskal Herriko Animalien Identifikazio Erregistro Orokorrean (AIEO) izena emateko eskaera ere, zeina 1993ko maiatzaren 5eko Aginduaren bidez sortu baitzen. Agiria interesdunen eskura egongo da albaitari ofizialen zein gaituen bulegoetan. Ale bat albaitariak gordeko du eta beste biak jabeak jasoko ditu; horretariko bat Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailera bidali behar du NANarekin kopia batekin batera datuak AIEOan inskribatzeko.

3. Erroldako identifikaziorik ez egotea edo horretarako emandako epean ez egitea arau haustetzat joko da, Animaliak babesteko Legearen 27.1.a artikuluak xedatutakoarekin bat.

4. Txakurraren jabeak AIEOri jakinarazi behar dizkio erregistro horretako datuetan gertatzen diren aldaketa guztiak, eta hauek, bereziki:

a) Jabearen edota txakurraren datuen aldaketak.

b) Jabe aldaketak.

c) Txakurraren baja, hil delako edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora behin betiko eraman delako.

d) Txakurra desagertzea (galdu edo lapurtu).

10 eguneko epean eman beharko da horren berri, baina txakurra galdu edo norbaitek lapurtu badu, orduan, epea 48 ordukoa izango da galtzen edo salaketa aurkezten denetik zenbatzen hasita (salaketaren kopia erakutsi beharko da).

Aldaketa eskatzeko edo gertakaria jasotzeko, udalean edo foru aldundian, edo gaitutako albaitarien bulegoetan, eskuragarri egongo den agiria erabiliko da, eta agiri horri NANaren fotokopia bat gehitu beharko zaio. Aurreko a), c) eta d) puntuetan azaldutako kasuetan interesdunak alea bidali behar du AIEOra.

Izatez, b) idatz zatian xedatutako kasuetan, hau da, salmenta, dohaintza edo indarrean dagoen legerian ezarritako beste moduren bat erabilita eskualdatze bat egiten denean, parte hartzen duten aldeek aldaketa eskatzeko agiria bete beharko dute, agiri horrek zenbaki bat eramango duelarik, eta lau ale bete beharko direlarik. Kartila ofizialaren eskualdaketaren oharra eta oniritzia udalaren osasun zerbitzuak edo Arabako Foru Aldundiak egin behar ditu, eta bertan dokumentuaren zenbakia agertu behar da. Ale bat parte hartu duen erakunde edo albaitariaren eskuetan geratuko da, beste ale bat txakurra eskualdatu duenaren eskuetan, eta beste bi aleak, berriz, jabe berriak jasoko ditu. Jabe berri horrek Erregistro Orokorrera bidali beharko du ale bat, eskualdatzea egiten den egunetik hilabete pasatu baino lehen.

Txakurra saldu edo laga ahal izateko ezinbestekoa izango da jabe berriari txakurra behar bezala identifikatuta eta erroldatuta ematea, baita kartilla ofiziala eguneratua ematea ere.

Artikulu honetan adierazi diren erroldatzeari buruzko aldaketak Erregistroari ez jakinaraztea arau haustea izango da, Animaliak Babesteko Legearen 27.1 a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

**5.-. artikulua.- Txakurra edukitzeak dakartzan betebeharrak.**

1. Kode Zibilaren 1905. artikuluan ezarritakoaren arabera, txakurra daukanak hark egiten dituen kalteen, galeren eta eragozpenak erantzukizuna edukiko du.

2. Txakurra daukanak beharrezko neurriak hartu behar ditu haren gorozkiak bide eta espazio publikoetan geratu ez daitezen.

2. La identificación se efectuará mediante la implantación, en la parte lateral izquierda del cuello del perro de un microchip o elemento microelectrónico que será efectuada por veterinario o veterinaria oficial, foral o municipal, o por veterinario o veterinaria privado o privada habilitado o habilitada para pequeños animales.

Dicha implantación se hará conforme a lo dispuesto en la Orden de 5 de mayo de 1993, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se regula la utilización de métodos electrónicos de identificación de perros en la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como a lo que se disponga en cualesquiera otras normas que se puedan establecer.

En el momento de la identificación del perro, el veterinario o veterinaria oficial, o habilitado habilitada actuante, rellenará la Cartilla Oficial y un documento de identificación y solicitud de inscripción en el Registro General de Identificación del Perro de la Comunidad Autónoma del País Vasco (REGIA), creado en virtud de la Orden de 5 de mayo de 1993. El documento estará a disposición de los interesados en los despachos de los veterinarios o veterinarias oficiales o habilitados o habilitadas. Un ejemplar quedará en poder del veterinario o veterinaria actuante, entregando los otros dos al propietario del perro que deberá remitir uno de ellos al Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, junto con la copia del DNI, para proceder a la inscripción de los datos en el REGIA.

3. La falta de identificación censal, o la no realización de la misma en el plazo previsto, constituirá infracción a tenor de lo dispuesto en el artículo 27.1.a de la Ley de Protección de Animales.

4. El propietario del perro deberá comunicar al REGIA cualquier variación de los datos contenidos en el citado registro y en concreto los siguientes:

a) Modificación de los datos relativos al titular y/o animal.

b) Cambios de titularidad.

c) Baja del perro motivada por fallecimiento o por traslado definitivo fuera de la CAPV.

d) Desaparición por pérdida o robo.

La comunicación deberá realizarse en el plazo de 10 días, salvo en el caso de pérdida o robo que deberá efectuarse en el plazo de 48 horas desde el extravío o denuncia aportando una copia de la denuncia.

La solicitud de modificación o incidencia, a la que se adjuntará copia del DNI, se realizará mediante un documento que estará a disposición de los interesados en el Ayuntamiento y en la Diputación Foral, así como en los despachos de los veterinarios o veterinarias habilitados o habilitadas. En los casos previstos en los puntos a), c) y d) anteriores, el interesado remitirá el ejemplar oportuno al REGIA.

Para los casos previstos en el apartado b), es decir, cuando se produzca una transmisión, por venta, donación o cualquier otra forma prevista en la legislación vigente, las partes actuantes deberán rellenar el documento de solicitud de modificación, numerado y por cuadriplicado ejemplar. La anotación y visado de la transmisión en la Cartilla Oficial deberá realizarla el Servicio de Sanidad Municipal o la Diputación Foral de Álava, debiendo anotar en la misma el número de documento utilizado. Uno de los documentos quedará en poder de la instancia actuante, otro en poder del transmisor, y dos en poder del nuevo propietario, que será el obligado a remitir al REGIA un ejemplar en el plazo de un mes desde la fecha de transmisión.

Cualquier venta o cesión conllevará la obligación de entregar al nuevo propietario los perros debidamente identificados, censados y con la Cartilla Oficial actualizada.

La falta de comunicación al Registro de las variaciones en la identificación censal contenidas en este artículo, constituirá infracción conforme al artículo 27.1 a) de la Ley de Protección de Animales.

**Artículo 5.- Obligaciones derivadas de la tenencia de perros.**

1. El poseedor de un perro será responsable de los daños, perjuicios y molestias que causare, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 1.905 del Código Civil.

2. El poseedor de un perro deberá adoptar las medidas necesarias para impedir que queden depositados los excrementos en las vías y espacios públicos.

Idatz zati honetan ezarritakoa ez betetzea arau hauste arina izango apirilaren 21eko 10/1998 Legeak, hondakinei buruzkoak, 34.4.c) artikuluan ezarritakoaren arabera. Hori guztia gorabehera, lege horren arabera neurri osagarriak ezar daitezke.

3. Erroldatua edota erregistratua egon behar duen txakurra daukanak, edo berak baimendutako norbaitek, txakurraren galera salatu behar du.

**6. artikulua.- Txakurra edukitzeko baldintzak.**

1. Oro har, etxean txakurrak eduki daitezke.

2. Eskumendun udal agintaritzak mugak jarri ahal izango dizkie txakurrak edukitzeko baimenari edota eduki ahal diren txakurren kopuruari ondokoak kontuan hartuta: txakurren bizitokiaren ezaugarriak, instalazioen egokitasuna, higiene eta osasun egoera, eta arriskurik edo eragozpenik sortzen den auzokoentzat edo beste edozein pertsonentzat edo txakurrentzat eurentzat.

Udal agintaritzak interesdunari eskatu diezaioke txakurraren edukitzari edo eskueran jartzeari buruzko informazioa eta agiriak emateko. Eskatutakoa ez betetzea arau hauste larria izango da, ordenantza honetako 44. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

**7. artikulua.- Zer egin txakur abandonatuekin.**

1. Abandonatutako txakurrak Administrazioak jasoko ditu bere zerbitzu baten bidez edo itundutako baten bidez. Txakurrak harrapatzeko eta garraiatzeko erabiliko diren baliabideak egokiak izango dira higienearen eta osasunaren aldetik; txakurrek ez dute jasan behar oinazerik premiarik gabe.

2. Aurreko puntuan aipatzen diren txakurrak biltzeko zentroan egongo dira legez ezarritako aldian (jarri epe bat) edo Arabako Foru Aldundiak itundutako Animaliak Babesteko Zentroak txakurrak jasotzeko finkatzen duen egunera arte. Jabeak txakurra berreskuratu nahi badu, jabetza frogatu behar du eta animaliak zentroan eragindako gastuak (mantenu eta egonaldikoak) ordaindu behar ditu.

Txakurraren osasuna, arriskua edo sufrimendua dela eta beharrezkoa bada, aurreko aldia behar beste moztuko da, zerbitzuko albaitariak uste duena aintzat hartuta.

3. Aldi horretan identifikatu gabeko txakurra inork erreklamatzen ez badu, neurri hauetako bat aplikatu ahal izango da: txakurra dagoen herriko udalaren esku geratu, eskatzen duen pertsona bati laga (osasun egoera administratiboa erregularizatu beharko du ordenantza honetako I. eranskinean ezarritakoaren arabera) edo, azken aukera moduan, sakrifizio eutanasikoa gauzatu.

Noiznahi, konpainiako txakur baten zaintza beste pertsona fisiko zein juridiko baten esku utzi ahal izango da aldi baterako.

4. Txakurra identifikatuta badago, jabeari jakinaraziko zaio, froga eta guzti, animalia jaso edota hartu egin dela, eta jabeak zazpi egun baliodun edukiko ditu berreskuratzeko, harrera zentroan edukitzeak eragin dituen gastuak ordaindu ondoren. Epealdi horretan jabeak txakurra berreskuratzen ez badu, aurreko idatz zatian ezarritakoa aplikatuko da.

5. Txakurrak konortea galarazi ondoren hilko dira sufrimendurik ematen ez duen prozedura baten bidez, albaitari baten kontrolpean eta ardurapean.

**8. artikulua.- Kaleko txakurrak.**

1. Txakurrek gizakiei eta beraien ondasunei eragozpenik ez sortzeko eta arriskuak ekiditeko, herritarrek Udalaren osasun zerbitzuei eman behar diete kalean noraezean edo abandonatuta ikusten dituzten txakurren berri.

2. Debekatuta dago kaleko txakurrei jaten ematea herri bideetan eta orubeetan.

Idatz zati honetan ezarritakoa ez betetzea arau haustea izango da ordenantza honetako 45. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

El incumplimiento de lo establecido en este apartado será considerado infracción leve de acuerdo con lo establecido en el artículo 34.4.c) de la ley 10/1998, de 21 de abril, sobre residuos. Todo ello sin perjuicio de la posible adopción de medidas complementarias que autoriza dicha ley.

3. El poseedor de un perro sujeto a censo y/o registro, o persona por él autorizada, deberá denunciar, en su caso, su pérdida o extravío.

**Artículo 6.- Limitaciones a la tenencia.**

1. Con carácter general se autoriza la tenencia de perros en los domicilios particulares.

2. La autoridad municipal competente podrá limitar la tenencia y/o el número de perros máximo atendiendo a las circunstancias de alojamiento, la adecuación de las instalaciones, las condiciones higiénico-sanitarias, así como por la no existencia de situación alguna de peligro o de incomodidad, objetivas, para los vecinos y las vecinas o para otras personas en general, o para el propio perro u otros animales.

La autoridad municipal podrá requerir al interesado para que facilite la información y documentación relativa a las circunstancias de la tenencia de los perros o la puesta a disposición del animal. Su incumplimiento será constitutivo de infracción grave a tenor de lo establecido en el artículo 44 de la presente ordenanza.

**Artículo 7.- Procedimiento ante perros abandonados.**

1. Los perros abandonados, serán recogidos por la administración mediante servicio propio o concertado. Los medios usados en la captura y transporte tendrán las condiciones higiénico-sanitarias adecuadas, y no producirán sufrimientos injustificados a los animales.

2. Los perros referidos en el punto precedente permanecerán en el Centro de Recogida de perros durante el tiempo (establecer un plazo) legalmente establecido, o hasta el día de recogida fijado por el Centro de Protección Animal, en su caso concertado por la Diputación Foral de Álava. Si el propietario o propietaria, desea recuperarlo deberá acreditar tal condición, así como abonar los gastos de mantenimiento y estancia del animal.

Cuando las circunstancias sanitarias, de peligrosidad o de sufrimiento del perro lo aconsejaran, a criterio del veterinario o veterinaria del referido servicio, el plazo citado se reducirá lo necesario.

3. Transcurrido dicho periodo sin que fuera reclamado el perro no identificado podrá ser objeto de las siguientes medidas, esto es, de apropiación por el Ayuntamiento de depósito, de cesión a particular que lo solicite y que regularice la situación administrativa sanitaria del animal, en la forma establecida en el Anexo I de la presente Ordenanza y en última instancia, de sacrificio eutanásico.

En cualquier momento, la custodia de los perros de compañía podrá ser delegada provisionalmente en otras personas físicas o jurídicas.

4. Si el perro llevara identificación, se notificará fehacientemente su recogida y/o retención a propietario o propietaria, que dispondrá de un plazo de siete días hábiles para su recuperación quedando obligado al abono de los gastos que haya originado su estancia en el centro de acogida. Transcurrido dicho plazo sin que el propietario o propietaria lo hubiere recuperado se dará al perro el destino previsto en el apartado anterior.

5. El sacrificio de perros se practicará por procedimientos, que impliquen la pérdida de consciencia inmediata y que no implique sufrimiento, bajo el control y la responsabilidad de un veterinario o veterinaria.

**Artículo 8.- Perros vagabundos.**

1. Con el fin de evitar las molestias y/o riesgos que los perros pueden ocasionar a personas y bienes, los ciudadanos o ciudadanas comunicarán a los servicios sanitarios municipales la presencia de perros vagabundos o abandonados.

2. Queda prohibido facilitar alimento en la vía pública y solares a perros vagabundos.

El incumplimiento de este apartado será considerado infracción de acuerdo a lo establecido en el artículo 45 de la presente Ordenanza.

3. Herri barruan txakurrak kontrolik gabe ugalduz gero, udal agintariek populazioa kontrolatzeko behar diren neurriak ezarriko dituzte.

Gastuak:

A) Txakurra identifikatuta badago:

Jabearen kontura izango dira txakurra udal zentrora edo animaliak babesteko zentrora eramaten denetik animaliak babesteko zentroa hartaz jabetu arte sortzen diren gastuak. Animaliak babesteko zentroak Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailera jakinaraziko dio jabea zein den eta zer gastu sortu diren, kobratzeko kudeaketak egite aldera.

Txakurra jasotzen ez bada, animaliak babesteko zentroa txakurraz jabetzen denetik sortzen diren gastuak zentro horren kontura izango dira.

B) Txakurra identifikatuta ez badago:

Udalaren kontura izango dira txakurrak lehendabizi jasotzen direnetik 30 egun naturalera arteko gastuak. Epe hori igaro ondoren, gastuak Animaliak babesteko zentroaren kontura izango dira harik eta txakurra laga edo hil arte, salbu eta udalak animalia jaso zen unean berariaz adierazi bazuen hasierako epea amaitu ondoren ere, hain zuzen, hirugarren bati laga edo txakurra hil arte, mantenu gastuez arduratuko dela.

**9. artikulua.- Zer egin txakurrak norbaiti eraso eginez gero.**

1. Txakur batek norbaiti eraso egin diolako salaketa jaso edo horren berri jakiten duen udal zerbitzuak erasoa egin duen animalia edota haren jabea identifikatzen lagunduko duten datuak eskatuko dizkio salatzaileari edo gertatutakoaren berri eman duenari, eta gero datuok berehala jarriko ditu administrazio espedientearen izapideak egin behar dituen agintaritzaren eskuetan, hau da, txakurra erroldatuta dagoen udalerriko udalaren eskuetan (erroldatuta ez badago, jabea bizi den udalerrikoa), eta dokumentazio guztia bidaliko dio.

2. Txakurrak erasoan norbaiti hozka egin badio eta ondorioz lesioren bat sortu badio, izapideak egiteko eskumena daukan erakundeak espedientea ireki dela jakinaraziko die Osasun Saileko Zaintza Epidemiologikoko Unitateari eta foru aldundietako Osasun Zerbitzuari.

Lesioa egin duen txakurraren jabeak edo edukitzaileak 24 orduko epealdia edukiko du animalia berak hautatutako albaitari ofizial edo gaitu batengana eramateko. Txakurra hamalau egun egon behar da behaketan; nolanahi ere, aldia txakur motaren araberakoa izan daiteke, bai eta kasuan kasuko egoera epizootiologikoaren araberakoa ere. Horrelakoetan txosten teknikoan behaketa aldia aldatzeko arrazoiak zehaztu behar dira. Txakurrak norbaiti hozka egin dionetik 24 ordu pasatu baino lehen jabeak ez badu eramaten bere borondatez albaitariarenera, udal agintaritza eskudunak eramateko eskatuko dio; horrez gainera txakurrak biltzeko zentro batean sartzeko edota bakartzeko ere agindu ahal izango du (II. eranskina).

Errekerimendu hori ez betetzea arau hauste larria izango da ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, Euskadiko Osasunaren Antolamenduarenak, 36.2.b.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Hori gorabehera, errekerimenduan eskatutakoa betetzeko behar diren kautelazko neurriak ezar daitezke. Egiten den txostenaren edo egiaztagiriaren kostua txakurraren jabeak edo edukitzaileak ordaindu beharko du. Txakurraren jabea edo edukitzailea nor den jakin ezean, gertatutakoaren berri eduki duen udal zerbitzuak eduki du animalia bildu eta behaketan jartzeko ardura. Espedientearen izapideak egiteko eskumena daukan udalari txakurra behaketan dagoela jakinarazi beharko zaio erasoa gertatu denetik 72 orduko pasatu baino lehen.

Albaitariaren behaketak bi helburu dauzka: zoonosi arriskua dagoen jakitea eta animaliaren arriskua ebaluatzea. Behaketaren ondorioak III. eranskinean dagoen ereduaren araberako egiaztagirian/txostenean azalduko ditu.

Behaketa amaitutakoan jabeak edo edukitzaileak 48 orduko epealdia edukiko du albaitariaren egiaztagiria/txostena bidaltzeko espedientea izapidetzeko eskumena daukan agintaritzari (lehen paragrafoan azaldu da), espedientean sar dezan. Agintaritza horrek albai-

3. Cuando la proliferación de especies perros de hábitat urbano e incontrolado, lo justifique, se adoptarán por las autoridades municipales las acciones necesarias que tiendan al control de su población.

Gastos:

A) Si se trata de perro identificado:

